
femmes

# FeMmes

Soberan duzun gauza bakarra denbora bada; zure inguruak biraka, bizitzak markatu baditu zure orduak; izorratuta eta zahar sentitzen bazara (lehenengoa bigarrena baino gehiago, eta alderantziz)... esnatzeko unea heldu da, erlojuak sinkronizatu eta jarduteko unea. FEMMES unea heldu da orduan.

Lau atso suminduk, lau amona iraultzaile eta aldarrikatzailek, gizartearen desilusio, atsekabe eta nahigabeaz ohartuta, zigor-bidea euren esku hartu eta iraultza egitea erabaki dute, komunikabideetan zein kalean ikusi eta entzuten duten guztia oinarri hartuta. Mugimendu berri bat sortu dute orduan, oldarkortasunezko metodo zentzugabeen eta protesta erabat desegokien bitartez mundua iratzarriko duen mugimendua.

Neoaktibista sozial bilakatu diren atso batzuen aldarrikapen-kantua da FEMMES, aldarrikapen politikoki ezegokia; umorean oinarrituta, bizi/borroka/protesta egiteko modu berri bilakatu baitute probokazioa.

FEMMES kale-ikuskizun ibiltaria da, testurik gabea, eta kalean zein espazio publikoetan esku hartzeko pentsatua dago, publikoaren parte-hartze aktiboa bilatuz. Hala, ikusleak pertsonaia nagusi, bigarren mailako edo figurante gisa kokatuko ditu herri, auzo, plaza edo hiri bakoitzean sortuko diren istorio ezberdinetan.

FEMMES fikziozko ikuskizuna da; kointzidentziarekin izan dezakeen antzekotasun oro errealitatea da.



## FICHA ARTISTIKOA:

Antzezleak:
Izpiñe Soto, Alejandro Antunez, Arantza Goikoetxea, Begoña Krego.

Eszena zuzendaria:
Gorka Ganso.

Jantzien diseinua eta sorkuntza:
Azegiñe Urigoitia.

Atrezzoa:
Iñaki Aguinaga

Diseinu grafikoa:
Vudumedia.com

Komunikazioa:
Guillermo Royo.

Ideia eta Sorkuntza:
Hortzmuga Teatroa.

Banaketa:
Hortzmuga Teatroa.

Iraupena:
60 min inguru

Diziplina:
Kale antzerki ibiltaria.

Publiko mota:
Edozein adinetako ikusleak.

Hizkuntza:
Testurik gabe.

## FICHA TEKNIKOA:

Ispilu eta komuna dituen kamerino bat.

Ikuskizunak ez du beharrizan tekniko zehatzik eskatzen, ezta muntaketa eta desmuntaketarik ere.

150 metroko ibilbidea gutxi gorabehera, antolatzailearekin adosteko.




femmes



hortzmuga teatroa

Hortzmuga Teatroa
C/ Bailen 1, 2 piso, Dpto.5. 48003 Bilbao. Bizkaia
Tel. +34 946 711 353 / +34 609 863 195.
info@hortzmuga.com
international@hortzmuga.com
www.hortzmuga.com